

Euskalduntze eta alfabetatzerako diploma finkatu egin da EHUUn

EKBrekiko elkarlanetik sortutako esperientzia honek bigarren ikasturteari ekingo dio


Euskalduntze eta Alfabetatzerako Diploma' irakurri genuen EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailak eta EKBk elkarrekin ateratako matrikulatzeko orri batean. Iaz hasi ziren proiektu hau lantzen eta aurten 2. ikasturtea egin behar badute ere, Unibertsitatean euskalduntze-alfabetatzea jorratzen den lehen aldia da, eta maila horretako elkarlanean aitzindari dira bi erakundeak.

JOXANJEL ALDAI / DONOSTIA

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailak emango duen euskalduntze eta alfabetatzerako diploma Euskal Kulturaren Bazarrearen (EKB) iniziatibaz sortua da. Hala nabarmendu digu Pello Jauregi diplomaren koordinatzaileak. «Helduen euskalduntze eta alfabetatzearen munduan sarri aipatzen dena da eta kezka nagusienetakoa irakaslegoaren prestaketa da. Horretarako beharra handia zen eta handia da. Horri erantzun beharrak eragin du diploma hau ere», diosku Jauregik, bere bulego berrian, udazkeneko goiz fresko eta busti amorratu honetan. Kezka horrek bultzatuta jardunaldiak egin zituzten euskalduntze-alfabetatzearen ari ziren hainbat erakunde eta lagunek orain bospasei urte. Haien ondotikoa da diploma.

Bi ikasturtetan osatzekoa da. Guztira 28 gai landuko dituztenak, hau da, 28 kreditu. Gaiak ezberdinak badira ere bi alor nagusitan bana daitezkeela azaldu digu Jauregik, bata irakaskuntza bera eta hizkuntzaren normal-kuntza soziala, soziolinguistikaren ingurukoa, bestea.

Diplomaren aurkezpenarako argitaratu duten orrian diotenez, euskara irakasten dabilzan irakasle arituentzat pentsatua da bereziki diploma hau. Hasieran irakasle izan nahi zuten guztiengana iristeko asmoa zutela esan digu, hala ere, koordinatzaileak. Baina ikasketa teoriko berriekin batera esperientzia txertatu nahi dute: «Gai praktikoak landu eta ikertzea praktikoa bideratu irakasle bakoitzak duen ikasgelan. Horregatik ari gara lehentasuna esperientziadun jendeari ematen». Euren xedea sakontzea dela esplikatu digu Pello Jauregik, «irakasleak errezikatzea». Nolanahi, batere esperientziarik gabeko irakasleak ere badute diploma hau eskuratzeko aukera.



Pello Jauregi da diplomaren koordinatzailea.

EDURNE KOCH

Elkarlanak eman ditzakeen fruituak

J.A. / DONOSTIA

■ Unibertsitateko eta handik kanpoko ekimenaren arteko elkarlanaren ondorio dugu euskalduntze eta alfabetatzerako diploma eta elkarlanak eman ditzakeen fruituen erakusle. EHUren eta EKBren arteko lanari esker jaio zen eta bere horretan jarraituko du aurten ere lankidetzak. Eskolak ez baitituzte soilik unibertsitateko irakasleek emango, erdia inguru euskaltegiakotako daktikariak izanen direlako. Ikasturtearen jarraipena egiteko, gainera, aholku batzordean har-

tuko dute parte batzuek eta besteek, eta urtean bizpahiru aldiz bilduko dira horretarako.

«Bide oso interesgarritzat» jo du diplomaren koordinatzaileak: «Askotan bide ezberdinak izan dituztelako herri ekimenak eta unibertsitateak, eta sarri herri ekimenak landutakoa hemen landu gabe egon ohi da, soziolinguistikaren esate baterako. Esperientzia eta teoria lotzeko aukera ekarriko digu honek, eta bide batez unibertsitateko sail estankook apurtzeko balio dezake, disziplinaren arteko elkarlana bideratzeko ere bai».

gogo handiz hartu dutela. Praktika ez ditu asetzen. Gauza berriak, ideia eta esperientzia berriak behar dituzte eta hori aurkitu dute, neurri batean behintzat, diplomaren.

Joan den urtean 10 ikasle izan zituzten Bilbon eta beste 27 Donostian. Aurten eskolak Gasteizen ere emateko asmoa dute. Ikasturtea urriaren 15ean haste-

koa da eta uztailaren 22an bukatu egingo da. Urritik ekainera, euskaltegiaren ohizko eskolak ematen ari diren bitartean, ostiral goizetan izango dituzte klaseak, 9.00etatik 13.30k arte. Eskola horiek 1. moduloa osatuko dute eta 2. moduloa berriz, uztailan emango dute. Horretarako hiru astez emango dira eskolak, astelehenetik ostiralerara 9.00etatik 13.30k arte. Orotara 28 kreditu

Denbora gehiago eman behar dugu alderdi praktikoa lantzen, oso ikerketa gutxi egiten da, esperientzia gutxi dago eta egiten diren apurrak ez dira argitaratzen».

emango dituzte, 280 eskola ordu. Diploma jasotzeko eskolen % 80 jaso behar dira gutxienez, eta ikasi dena neurtzeko gai bakoitzeko lan bat egin beharko dute ikasleek.

Matrikula egin nahi duenak hil honen 30a arte izango du beta eta kreditu bakoitzeko 7.000 pezeta (320 libera inguru) ordaindu beharko du. Ikasleei laguntzeko beka sistema ezarri behar dutela jakinarazi digu diplomaren koordinatzaileak.

Aurreko urtearen aldean alderdi praktikoa gehiago landu nahi dutela aurten dio Pello Jauregik: «Bai, denbora gehiago eman behar dugu horretan, oso ikerketa gutxi egiten da, esperientzia gutxi dago eta egiten diren apurrak ez dira argitaratzen. Guk horretarako bidea egin behar dugu, joera sortu, batez ere egin diren ikerketak ezagutarazteko eta argitaratzen hasteko». Funtsazkotzat jo ditu baita ere beste zientzien ekarpenak, «ikerketa taldeak osatzea, aholkuak hartzea». Aurten, halaber, diplomaren inguruko «bizitza kultural aberatsagoa» egin nahi lukete: euskalduntze-alfabetatzearen gaineko mahainguruak, hitzal-diak eta alfabetatzeari buruzko jardunaldiak, ikasturteari ilusioz heltzeko, Jauregik adierazi digunez. Kexu da, hala ere, gaiak behar bezala lantzeko bertako materialik apenas dagoelako, ia dena kanpoko delako eta horrek berak sor ditzakeelako arazo zenbait, «batez ere gehiena ingelesezkoa delako, eta ikasle askok zailtasunak ditu hizkuntza horretan».



Jauregi bere bulegoan. E. KOCH

Sektoreak «behar ikaragarriak» dituela dio Jauregik

J.A. / DONOSTIA

Helduen euskalduntze-alfabetatzearen «behar ikaragarria» dagoela nabarmendu digu, kexu, Pello Jauregi EHUK eta EKBk elkarlanean antolatu duten euskalduntze eta alfabetatzerako diplomaren koordinatzaileak. Gaiak galdetu diogunean, «hutsuneak, hutsune handiak», daukela dio azkar.

Helduentzako iraskuntza oso konplexua izan arren euskaltegiak irakasleak nola-halako gutxienezko ikastaroak hartu eta hasi egiten dela azaldu digu Jauregik. «Hasieran heldu egiten diote beren zereginari, eta esperientzia hartzen duten bitarte hori ikaslearen kalterako izaten da sarri». Kezkagarria da Jauregiren ustez, eta «seriotasuna kendu dio euskalduntze-alfabetatzeari. Horregatik itxura profesionalik ez du eman sektoreak».

Sektorea «utzia» dagoelako sintomak argiak dira Jauregiren iritziz. «Helduen alorra ez da ikertu, eta ez dago ikertzeko plangintzarik. Horren isla da unibertsitatea, hemen ez baitago kezkarik», dio. Gizarteak euskalduntze-alfabetatzea «desprestigiaturik» daukan ustekoa da Jauregi, «ez zaio behar duen garrantzia soziala aitortu, ez du gizaratearen ezagutzarik, eta are txikiagoa administrazioarena». «Desoreka» dagoela esan du Jauregik haurren eta helduen euskalduntzearen, «normalizazioa haurren bidetik etorriko delako politika egiten ari delako».

Sektorea prestigiatu beharra eta horretarako lehenbailehen irakasleak homologatzeko sistema aldatzeko eskatu du Pello Jauregik. «Gaur egun edozein lizentziatu onartzen delako helduen euskalduntze-alfabetatzearen irakasle izateko, eta horrek ezin du horrela izan». Sintoma itsusiak direla uste du, «sektorea kaptanbetan dagoela erakusten dutenak». «Sektoreari bultzada eman behar zaio eta horrek iango du isla gizartearen».